

| SAGARDO EGUNA |

Mundu guztiko sagardoak ekarriko dituzte Usurbilgo Sagardo Egunerako

Ospakizuna 25 urte betetzera doanez egitarau zabala prestatu dute

«Sagardo Egun asko daude, eta denak Usurbilgoari begira egoten dira»

FELIX IBARGUTXI


USURBIL. DV. Usurbilgo Sagardo Egunak 25 urte beteko ditu aurtentzen eta aurtengoa ez da nolana hikoia izango. *Sagardo Egun Mundiala* izango da, eta izen horrekin bataiatu dute mundu guztiko hainbat sagardo-botila ekarriko dituztelako ospakizunera. Ohitura den bezala, maiatzeko hirugarren igandean izango da jaia, hilaren 21ean, beraz. Eta festa gozaten hasteko, atzo JoxAnton Artze ohorezko kide izendatu zuten Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunek.

Jakoba Errekondo mintzatu zen atzoko ekitaldian Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak elkarrearen izenean. Esan zuen «gazte ero batzuek, batez ere Ardatza elkartekoek» sortu zutela beste elkarte hau, «sagardoa krisian zegoela eta zerbait egin behar zelako». Aitzindari izan omen ziren eta erreferente bihurtu omen dira. «Hitzaldiak eta erakusketak antolatzen hasi ginen eta hortik etorri zen Usurbilgo Sagardo Eguna. Sagardo Egun asko egiten dira Gipuzkoan, eta denak, gutxi-asko, Usurbilen egiten denari begira egoten dira».

Asmo handiak dituzte aurtengo urterako. Hasteko, bisita didaktikoak antolatuko dituzte, Usurbilgo sagasti eta sagardotegietera, herriko teknikari bat gidari jardungo delarik. Ikastaro batzuk eta sagardo-dastaketa batzuk antolatuko dira baita ere, Udako Euskal Unibertsitatearekin batera, Usurbilen eta Baionan gauzatu direnak, izenburu hau jarri zaielarik: *Txotxetik haratago, gus to baduzu*. Gainera, *Bertso Unibertsitatea* izeneko hitzaldi zikloa jarriko dute abian, besteak beste Andoni Egaña, Jon Sarasua eta Maialen Lujanbio jardungo direlarik.

Museoa ere nahi dute

Jakoba Errekondok sagardoaren museoaren gaia ukitu zuen baita ere: «Lehenengo aldiz orain dela 22 urte bota zen ideia eta guk horretan jarraitzen dugu. Garai hartan esaten genuen Astigarragan egin behar zela museoa, eta orain esaten dugu Usurbilen egin behar dela. Badira bost urte proiektua udaletxean aurkeztu genuela. Gure ustez, horretarako toki egokia Artzabal baserria da. Hamazazpigarren mendeko tolarre barrokkoa dago han». Udala,



JoxAnton Artze, Gaztañaga eta Uribarrenen erdian. [SARA SANTOS]

berriz, pausoak emana hasia da monumentu izendatua dagoen baserri hartan zahar etxea eraikitzeko.

Esan bezala, aurtengo Sagardo Egunerako mundu guztiko sagardoak ekarri nahi dituzte Usurbilgo. Errekondoren esanetan, «Europako, Ameriketako eta Afrikako hainbat tokitan egiten da sagardoa. Asiako daturik ez daukagu, baina badakigu egiten dela Txile, Argentina, Uruguai, Brasil, Mexiko, Kenia, Maroko, Britainia, Gales, Polonia, Austria, Alemania, Danimarka, Hungaria, Eslovenia, Italia, Errusian... Eta uste

dugu Mesopotamia aldean ere egingo dela, sagarrondoak han baitu jatorria».

Errekondok gogorarazi zuen lotura dagoela ontziola eta sagardotegiarten artean: «XV eta XVII. mende bitartean, inguru honetan egon ziren ontziola indartsuenak. Ontzietan edari bat eramane behar izaten zen urrutiko bidaiari haientara, eta edari hori sagardoa izaten zen. Orduan sortu ziren sagardotegi handiak, eta sagardoari zor diogu baserria. Bestela, hemengo paisaia Kantabria eta Asturiasekoa bezalakoa izango zen: etxe askoz txikiagoekin eta bordekin».

Ekitaldi dotorea eta Artzeri ohorea

F. I.

Oso ekitaldi landua izan zen atzo Saizar sagardotegian egin zena. Hasteko, dantzari batzuek sagar-dantza batzuk egin zituzten, eta gero, aska batean sartuta, sagarra jo lehengo erara, mazoarekin. Eta jotzen ari ziren bitartean txalaparta gogorarazten zuen soinua atera zuten. Txalaparta-ohol bat ere bazegoen handik gertu, eta patsa alde batera utzita hari ekin zioten gero.

Batzuen eta besteen hitzaldien ostean, Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunek ohorezko kide izendatu zuten JoxAnton Artze idazle eta musikaria, eta bertako semea. Zapia jarri zion lepoan Urko Manterolak eta orduan olerki bat irakurri zuen omenduak, ardatz moduan esaldi hau zeukana. «Sagarrondoak duen guztia besterentzat da». Ekitaldia Hasier Etxeberrria kazetariak aurkeztu zuen.

Rafa Uribarren, Landa Garpenerako foru diputatua, berriz, honela mintzatu zen atzokoan: «Sagardoak izugarritzko bilakera izan du azken hogeita bost urteotan. Sagardotegiak bostertuak zeuden orduan, eta sagardoaren kalitatea ez zegoen bermatua. Foru Aldundian 1982an hasi ginen sagarrondo-mintegiarekin, sagardogileei sagarrondo-mota egokiak eskaini nahian».

Alkateak, Luis Mari Ormaetxeak, esan zuen Usurbilgo sagardo Eguna «erreferente» bihurtu dela eta «arrastoa» utzi duela, bai kulturala bai ekonomikoa. ■